



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



GETXO UDALERRIAN ENPRESAK SORTZEA, DIBERTSIFIKATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO ERABILIKO DIREN UDAL ESPAZIOEN LAGAPENAREN ADJUDIKAZIO DEIALDIA. GETXO ITSAS HUB.

Xedea	<p>Deialdi honetan jasotako terminoak betez, lagapenaren xede izango dira Getxoko Udalaren Sustapen Ekonomikorako Arloari atxiki zaizkion eta 1. eranskinean jaso diren udal espazioak.</p>
Helburua	<p>Guneen lagapena ondoren aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoen eta erakundeen alde egin ahal izango da, beren jarduera garatzeko lan gune bat behar badute, jarduera horrek ekonomia sustapenarekin zerikusia badauka eta aurreko puntuan azaldutako jarduketa ildoetako batean kokatzen bada.</p> <p>Zehatz-mehatz, honako erakunde hauek izango dute aukera:</p> <ul style="list-style-type: none">- Egoitza soziala eta fiskala Getxo udalerrian daukatenek edo- Beren lantokia Getxo udalerrian daukatenek edo jarduera bertan garatzen dutenek edo- Egoitza soziala eta fiskala Getxo udalerritik kanpo daukatenek baina beren enpresa garapeneko proiektuaren arabera Getxo udalerrian kokatuko direnek. <p>Oinarri hauen ondorioetarako, honako hauek barne hartuko dira "erakunde" definizioan: enpresa indibidualak, merkataritza sozietateak, elkarteak, fundazioak, ondasun erkidegoak, etab.</p> <p>Pertsona fisikoei dagokienez, ekintzailtza proiektu bat daukaten pertsonak edo pertsona taldeek izango dute aukera, baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none">- Getxon erroldatuta badaude edo- Enpresa proiektua Getxon ezarriko badute. Eskaerari gehitutako adierazpen erantzulearen bidez, ekonomia jarduera eta egoitza soziala Getxo udalerrian ezartzea aurreikusita daukatela baieztatuko dute, esleitutako espazioan jarduera hasi baino lehen..
Betekizun orokorrak eta espezifikokoak.	<p>Honako hauek dira betekizun orokorrak: <u>Erakundeek</u>:</p> <ul style="list-style-type: none">- Behar bezala eratuta eta kasuan kasuko erregistroan erregistratuta egon behar dute.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eduki behar dituzte.- Sozietateak badira, dagozkien erregistroetan inskribatuta eta Gizarte Segurantzaren erregimenean alta emanda egon behar dute, bai sozietateek bai kideek.- Dagokien Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean alta emanda egon behar dute. <p><u>Pertsona fisikoek</u>:</p>



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



	<ul style="list-style-type: none">- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eduki behar dituzte.- Enpresa proiektu batean lan egiten egon behar dute. <p>3.2. Betekizun espezifikoak.</p> <ul style="list-style-type: none">- Proiektuak bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa eduki behar du- Proiektua ekonomia sustatzeko enpresa proiektutzat jo behar da edo tokiko ekonomia sustatzearen aldeko jarduerak egin behar ditu.- Eskatzen den gunean garatu beharreko proiektua egokitzat jo behar da eta tokiko ekonomia sustatzearen aldeko jarduerak egin behar ditu.- Enpresa proiektua osatzen duten jarduerak ez dituzte funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak urratu behar.
Lagapenaren iraupenarena eta mota.	<p>Urtebetean erabiltzeko baimena emango da, beste urte betez luzatu ahal izango delarik. Epe hori gunea haren esku uzteko agiria sinatu eta biharamunian hasiko da zenbatzen.</p> <p>Hasieran aurreikusitako urtebeteko lagapena luzatzeko, lagapen hartzaileak eskaria egin beharko du eta Getxoko Udalak berariazko ebazpena eman beharko du erabakia justifikatuz. Horretarako, urteko memoria aurkeztu beharko da eta honako alderdiak kontuan hartuko dira: proiektuaren aurrerapen maila, proiektuak tokiko eremuan duen inplikazioa (enpresa proiektuarekin lotura duten ekintzak, hitzaldiak, eta abar) eta lagatako espazioaren erabilera maila.</p>
Puestos de trabajo por proyecto	<p>Enpresa proiektu bakoitzerako gehienez ere 2 postu egongo dira, eta deialdian postuak hutsik geratuz gero, onuradun bakoitzak 3 postu izatea eskatu ahal izango du; horiek esleitzeko, deialdian ezarritako adjudikazio irizpideak beteko dira..</p>
Araubide ekonomikoa.	<p><u>Aldi baterako lagapenen araubidean</u>, enpresa proiektuetarako udal guneak okupatzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalean xedatutakoak beteko dira.</p> <p>Postu bakoitzeko, eta hilabete edo zatiki bakoitzeko: 75€ +BEZ. Ordaindu beharreko tarifa helbideratu beharko da.</p>
Eskaerak	<p>Eskariak egoitza elektronikoa egingo dira: http://www.getxo.eus (AEB Administrazio Elektronikoko Bulegoa Nire kudeaketak etxetik-> Nire erregistro telematikoa->Eskaria egin->Ohar eredu =Getxo Itsas Hub 2021 eskaria)</p>
Eskariak aurkezteko epea	<p>Eskariak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita 30 egun naturaleko epean aurkeztu ahal izango dira.</p>
Deialdiaren oinarriak	<ul style="list-style-type: none">➤ BAO-an argitaratzeke➤ Getxolan. Getxo Elkartegia. Ogoño kalea, 1. Areeta. Tlfno: 94 466 01 40. getxoitsashub@getxo.eus https://www.getxo.eus/eu/getxolan
Akatsak konpontzea	<p>Eskaera aurkeztean dokumentazioa falta izango balitz, eskatu egingo da eta 10 egun balioduneko epea emango da aurkezteko.</p>



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



<p>Hautapen irizpideak eta prozesua.</p>	<p>A Baloratzeko eta, ondorioz, udal guneen erabilera esleitzeko helburuarekin, balorazio irizpide hauek hartuko dira aintzat:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna 30 puntu, gehienez ere.2. Lantaldearen gaitasuna: 20 puntu, gehienez ere..3. Egoitza 10 puntu, gehienez ere.4. Proiektu berritzaileak 10 puntu gehienez ere.5. Arlo estrategiko proiektuak sustatzea: 10 puntu, gehienez ere.6. Itsasoarekin eta irristatzearekin lotutako proiektuak 10 puntu, gehienez ere.7. Garapen Agentzia baten tutorizazioa izatea. 5 puntu, gehienez ere8. Sortu berri direan enpresak 5 puntu, gehienez ere <p>Balorazioa zehatzagoa izateko, aurkeztutako dokumentazioa baloratzeaz gain, sarbide ebazpena eman aurretik, eskatzaileek elkarrizketa bat egingo dute Getxoko Udalak izendatutako langileekin proiektuaren ebaluazio teknikoa egiteko.</p> <p>Espazioak erabili ahal izateko ezinbestekoa izango da 1. apartatuan gutxienez 15 puntu eskuratzea (proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna) eta 2. apartatuan gutxienez 10 puntu eskuratzea (lantaldearen gaitasuna). Onetsitako proiektuak izango dira.</p>
-------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------